



Santa Zuziliako kontzertua

SALATXO KANTUZ AIZTONDO ABESBATZAK



Azaroak 20
igandea
12:45
Orioko elizan

& **ANTZINAKO
MUSIKA TRESNEN
TALDEA**

AIZTONDO ABESBATZA

Aiztondo abesbatza 1995ean sortu zen, Astigarragan. Herriko hainbat lagun elkartu, kantatzeko zaletasuna zutenak, eta abesbatza sortzea erabaki zuten. Asmoa elkartu eta kantatzea zen, euskal kanta herrikoiak batez ere.

Urte hauetan bost zuzendari izan ditu abesbatzak (oraingoa, bosgarrena) eta hainbat herritarrek parte hartu dute abesbatzan. Zuzendarien eta abesbatzako kideen musika zaletasunaren arabera, hainbat eratako kantuek landu eta eskaini ditu abesbatzak: Euskal Herriko kanta ezagunak (antzinakoak nahiz gaurkoak), beste herrialde batzuetako folklore-kantak, Erdi Aroko kantak, Gorteetako kantak, erlijiosoak eta abar.

Aiztondo Abesbatza mistoa da eta 20 bat lagunez osatuta dago une honetan. Abesbatzak urtero parte hartzen du herriko ospakizunetan eta, horrez gain, Euskal Herriko eta atzerriko toki askotan abestu du hogei urte pasako ibilbidean.

Zuzendaria: Igor Arroyo

KANTUZ ABESBATZA

Kantuz abesbatza 1989an sortu zen, Hernanin, Jaione Escuderoren eskutik; abesbatzako partaideen asmoa herrikoia izatea zenez, 1990eko Santa Ageda bezperan egin zuen bere lehen irteera.

Helburu horri eutsiz, herriko kultur ekintza ugarian parte hartu du urte hauetan: herriko festak, Gabonak, Santa Zezilia, Santa Ageda... 1991n Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen sartu zen eta, geroztik, herritik kanpo ere egin ditu emanaldiak.

1993an Javier Zubimendik hartu zuen batutaren erreleboa 2003ko ekaina arte. Urte hartan Amaia Sasiainek hartu zuen zuzendari kargua 2007ra arte eta, azken urteotan, Igor Arroyok zuzendu du. Gaur egun 40 ahots baino gehiagok osatzen dute abesbatza eta errepertorio aberatsa dute: euskal folklorea, beste lurraldetakoa, polifonia... Emanaldi ugari egin ditu, bai Euskal Herrian eta bai atzerrian: Katalunian, Frantzian, Italian...

Zuzendaria: Igor Arroyo

PROGRAMA

FRANTZIA

Belle qui tiens ma vie	(K)(A)(S)	Thoinot Arbeau (1520-1595)
Margot labourez les vignes	(K)	Jacques Arcadelt (c.1504-1568)
Il est bel et bon	(K)	Pierre Passereau (c.1490-c.1547)
Tourdion	(K)	Ezezaguna (1530)

ESPAINIA

Hoy comamos y bebamos	(S)(K)(A)	Juan del Encina (1468-1529)
Más vale trocar	(S)	Juan del Encina (1468-1529)
Con amores la mi madre	(S)	Joanes Antxieta (c.1462-1523)
Ríu, ríu, chíu	(S)	Mateu Flecha (1481-1553)

INGALATERRA

Pastime With Good Company	(A)(S)(K)	Henrike VIII (1491-1547)
Come Again, Sweet Love	(A)	John Dowland (1563-1626)
Weep, O Mine Eyes	(A)	John Bennet (c.1575-c.1614)
Now Is the Month of Maying	(A)	Thomas Morley (1557/58-1602)

ITALIA

Vecchie letrose	(A)	Adrian Willaert (c.1490-1562)
Matona mia cara	(S)	Orlando di Lasso (1532-1594)
Amor vittorioso	(K)	Giovanni Gastoldi (c.1554-1609)
L'eccho	(K)(S)(A)	Orlando di Lasso (1532-1594)

SALATXO Abesbatza (S) :: **KANTUZ** abesbatza (K) :: **AIZTONDO** abesbatza (A)

ANTZINAKO MUSIKA TRESNEN TALDEA

Ganba biolak: **Elena Murgia, J. Luis Toledano**. Moko-txirula: **Jon Elizalde**
Espineta: **Josean Pascual**. Perkusioa: **Ixak Oiartzabal**. Zuzendaria: **Igor Arroyo**